

Zozo zuriak



JON ALONSO
ITZULTZAILEA

Jada bizpahiru aste izango dira irakurri nuenetik, Maialen Akizuren zutabe batean. Aner Peritzek telebistan esandakoak zekartzan: “Bertsolaritza da gizon zis heteroekin ez harremantzera eraman nauena, bertsolaritza delako disidente egin nauena, eta, era berean, bertsolaritza delako gizonekin gehien egoten den espazioa”. Gizon zis (terminologiak unibertsitatean kimika organikoa ikasten ari nintzen garaiak ekarri dizkit gogora) hetero, zuria, eta are aski zaharra naizenez, gehiago edo gutxiago gustatu, esaldiak entzun eta ulertzen saiatzea dagokidala uste dut. Gizonezko zisheterozurizaharra izate hutsez, neuk ere edukiko dudalako, gehiago edo gutxiago, nire erantzukizun partea –nire zati alikuota– Aner Peritzek jasan behar izan dituen mespretxuen eta irainen bidea den bezalakoa izan dadin, edo, oso baikor izanda, zen bezalakoa izan zedin. Horrenbeste zor diot. Haren mendeku gosea, hori ere bai, nabarmenezko, bakantzeko gogo bezain handia iruditzen zait.

Maialen Akizuk jakinarazi dizkigu, zutabe berean, Anerren esanak sare so-

Gizonezko
zisheterozurizaharra
izate hutsez,
neuk ere edukiko
dudalako, gehiago
edo gutxiago, nire
erantzukizun partea

zial batean eragindako komentarioak. Basajaun delako batek zera idatzi omen du: “Holako astakerik esateko moda txotxoloa noiz bukatzen da?”. Bistan da Basajaun delako horrek ez duela ezer txarrik ikusten Aner Peritzek sufritutakoan. Ez dela erantzule sentitzen, ez asko eta ez gutxi. Antzera idatzi du, baina iraingarriago, Baserritar izenpe-

tzen duen beste batek. Eta gero dator Agotta erabiltzailea: “Gizon zis hetero? ordun be atta, attona, lehengusu ro anai (baldin bazka) ezta ezta eonen ordun?”. Agottak pentsakor utzi nau. Bistan da Agottak Peritzek adina beharra daukala singularizatzeko, bakantzeko, nabarmenezko; bakarra, Agottaren kasuan, bakantzeko beharra, arauaren arbuioa, normaltasunaren erdeinua eta molde konbentzionalekiko higuina erakutsi beharra arlo linguistikora eraman dela (ongi idatzi zuen Iñigo Aranbarrik duela gutxi: analfabetoa naiz eta harro nago). Zertaz mendekatu nahi du Agottak, ordea? Euskararen batasunaz? Zein da haren gorrotoaren jatorria? Norbaitek ortografia erakutsi nahi izana? Erreflexu tribal bat da? Erantzukizun partea daukat, halaber, Agottak sufritu omen duen zapalkuntza linguistiko –dasuposat– *horrorosoan*?

Ez dakit ezer, eta dagoeneko ez dut uste gauza handirik jakitera iritsiko naizenik. Tira, gezurra da; ornitologia pixka bat, behintzat, ikasi dut: Euskal Herrian zozo guztiak zuriak direla, alegia. Ez dago haboro ttanttarik. ●



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK , OSPAIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL • 943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com